

Ageri du Diharassarry baten eskolakoa dela, bainan Sara-tar famatuak eskas zuen goxo batek lagundurik. Hiriart Urru-ty-ren eite hainintz baluke, haren bizitasuna eta luma xorrotxa balitu, doi bat alegrantziarekin. Aita Blas-ek ez bide zuen bere luma lerratzerat utzi nahi ele jostagarrietarat, berenaz gizon plaxenta alegera eta lagunkina zelarik.

Damurik gerlak landare Fruitutsu hori errotik moztu bai-tzaukun, Euskal literaturaren kaltetan.

«IKUSTEN DUZU GOIZEAN» KANTUAREN AIREAZ BI SOLAS

L. Dassance

Elgarrekin gertatzen girenean, hain gogotik emaiten ditu-gun khantoreak noizkoak ditazken eta nork eginak hamarretarik bederatzieta ez dakigu; bakarrik espaldikoak direla bai, ahotarik mendez mende beharrietarat iragan direla guk ikasi arte; bainan gehiagoko argirik ez dugu, ez ere izanen menturaz behin ere!

Segurki, herriak hain barna beretu dituen kantu zenbaitez badakigu Iparragirrek, Elizanburuk, Otxalde-k, Dibarrart-ek, Liqueix edo Etchaun-Iruri batzuek asmatuak eta moldatuak di-rela —pertsuak edo hitzak bederen— haatik, hainitzetan, aire xahar baten jauntzia baliatuz.

Bainan, bertze guziak? *Bereterrezenak*, *Apez beltxarenak*, *Atarratze Jauregikoak* edo *Urtsukoak*, *Xoriñoak kaiolan*, eta holako?

Alabainan, ditugun herri-kantu bildumak ez dire hain aspaldikoak: lehenatarik bat eta naski ezagutuena, J. O. J. Salla-berry Mauleko lege-gizonarena, 1870 ean agertu da, beraz, duela ehun eta hirur urte.

Urte bat lehenago, Euskal-kantu liburu xume bat bertze ziberotar batek agertarazi zuen gutiago hedatua izan dena eta goroztik gutiago ezagutua dena: "SOUVENIR DES PYRENEES — 12 airs basques choisis et notes par Madame de la Villehélio" (1).

Kaiertto pollit hori gure lagun musikazaleek hain segur ezagutzen baitute aipatuko dugu bakarrik: "Zortziko" deitzen duen airea, eta musikaren ondotik daukan oharra:

"On a mis sur le chant en Majeur de ce zortziko de charmantes paroles, le Laboureur heureux, qui sont maintenant très populaires eta araient obtenu, il y a quelques années, le prix de poésie donné amuellement à ses compatriôtes par M. Antoine d'Abbadie...".

Egia erran, delako zortzikoari behako bat eman orduko, ezagun da "Ikusten duzu goizean" orok ezagutzen duten olerkia-arentzat J. B. Elissanburuk hautatu zuen aire edo doinu berbera dugula.

Liburutto horri esker baginakien beraz Euskal-Herri osoan, eta denbora laburrik barne, halako hedamena ezagutu zuen olerkia mendiz haraindiko aire batean moldatua izan dela.

Gure adiskide Pierre Lafitte kalonjeari esker, huna berriz nun, orai, bertze froga bat ekartzen ahal dugun gauza hortaz:

Eskuetan eman daukun kaier xahar batean aire bera kausitu dugu eta aurkintza horren berme huna airearen kopia, bertze seinalerik ez duena hastapeneko hitz hautaz bertzerik:

"HORRA NUN DEN URNIETA..."

Urnieta hori Donostiari hurbil den herri bat omen da. Damurik, hitz bakar horiek emanik gelditzen baita gure kaierttoa...

Agian, gure Eskualzain adiskidek, Lecuona, Zabala edo Zatarain jaunek hastapen horri emanen diote ezagutu ginukenen segida!

(1) Andere Villehélio-ren gazteko deitura Carricoburu zen eta Schuttan sortua zen.